

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 5/2021 Foru Dekretua, otsailaren 9koa. Onespena ematea mahastien aseguruak kontratatzeke laguntzetarako oinarri arautzaileen aldaketari eta lerro horren 2021erako deialdiari**

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 30eko 22/2020 Foru Dekretuaren bidez, onspena eman zitzaizen mahastietan nekazaritza aseguruak kontratatzeke laguntzak emateko oinarriari (ardogintzako mahatsaren ustategirako aseguru eta ardogintzako mahatsaren aseguru konbinatua eta ezohiko kalteen aseguru) eta 2020ko deialdiari.

Eskaera horiek aurkezteko epearen eta moduaren barruan, aipatutako dekretuaren 7. artikulua xedatzen du urtero deialdi bat onetsiko dela. Deialdian, urtero onar daitezkeen aseguru lerroak, eskaerak aurkezteko epea, eta laguntzak emateko erabiliko diren kredituak zehaztuko dira.

Mahastien aseguruak laguntzaren 2021erako deialdia onetsi behar da, eta oinarri arautzaileen 2.1.e) artikulua gaur egun erretiro adin ofizialari dagokionez indarrean dagoen legedira egokitu behar da.

Arabako Foru Aldundiaren 2021erako ekitaldiko gastuen aurrekontuan 200.000,00 euroko 40.1.04 42.02.479.00.02 partida dago, zeinak "Mahastien aseguruak kontratatzea sustatzea" izena baitu; hortaz, laguntza horien 2021erako deialdia onetsi behar da.

Aginduzko txostenak ikusi dira, eta Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Mahastietako nekazaritza aseguruak kontratatzeke laguntzak emateko oinarri arautzaileen 2.1.e) artikulua onestea (ardogintzako mahatsaren ustategirako aseguru eta ardogintzako mahatsaren aseguru konbinatua eta ezohiko kalteen aseguru). Laguntza horiek Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 30eko 22/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsi ziren. Apartatu hori honela idatzita geratuko da.

e) 18 urte beteta izatea eta erretiroko adin ofiziala bete gabe izatea, laguntza eskaerak aurkezteko epea amaitzen den unean.

Bigarrena. Onspena ematea mahastien aseguruak kontratatzeke laguntzen 2021eko deialdiari. Hona hemen xehetasunak:

Diruz lagundu daitezkeen aseguru motak: 2020an indarrean egon den Nekazaritzako Aseguru Konbinatuen Plan Nazionalan, zeina Arabako Lurralde Historikoan dauden lurzatiei aplikatzeko baita ardogintzako mahatsarako, jasotako aseguru lerro eta moduluen barruan dagoen edozein.

Eskaerak aurkezteko epea: deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik 2021eko ekainaren 30era arte, biak barne.

Adin betekizuna: 18 urte beteta izatea eta erretiroko adin ofiziala bete gabe izatea.

Kreditu erreserba: {200.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2020ko aurrekontu 2021era luzatuaren gastu aurrekontuko 40.1.04.42.02.479.00.02 "Mahasti aseguruaren kontratazioa sustatzea" partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 21.5.21.105.211/000)}. Zenbateko hori oinarri arautzaileetan eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten eskaeren alde xedatu eta ordainduko da, oinarri horien 10. artikulua arabera.

Kreditu horrek zenbateko gehigarriekin handitu ahalko dira Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 21.2.b) artikuluan xedatutako mugen barruan, hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko 100eraino, baita aurrekontu partidan edozein zioengatik gerta daitekeen kredituaren gehikuntzagatik ere.

Hirugarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea laguntza deialdi hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Laugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz 2021eko otsailaren 9a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Nekazaritza foru diputatua*

**EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO**

*Nekazaritza zuzendaria*

**MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE**